tolosaldeko
ataria

ASTEARTEA
2019/05/28
7. urtea, 1.064. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Jai giroa Lizartzan, Txaraman, Gaztelun eta Berastegin

Lizartzan Estratako festak ospatu dituzte lehen aldiz, Berastegin Euskal Jaia izan dute, Txaraman festak izan dituzte eta Gaztelun Udaberri festa // **6**

Tolosa CF mutilen talde nagusia, hirugarren mailara

Añorgaren aurkako partida irabazi zuen futbol taldeak eta Anaitasunak galdu egin zuen // **7**

IRENE ARIN

HAUTESKUNDEEN BIHARAMUNA

Eskualdean EH Bildu izan da alderdirik bozkatuena, eta Villabona eta Irurako alkatetzak berreskuratu ditu; EAJ Tolosako bozkatuena izan da, baina zortzina hautetsirekin PSE-EErena erabakigarria izango da // **2-5**

ALEGIA – Beistin Auzoa
Azken etxebizitzak!

4 logela + 2 bainugela 180m2 erabilgarritik gora
275.000€ tik hasita

VILLABONA – Kale Berria 48

3 logela + 2 bainugela
205.000€ tik hasita
Etxebizitza herri erdigunean!

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.
KALE BERRIA 46, BEHEA
20150 VILLABONA
607 445 484
943 69 02 97
www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com

107.6 fm · www.ataria.eus
ASTEARTEA, 2019ko maiatzaren 28a

UDAL HAUTESKUNDEAK 2019

Alderdiek elkarlanerako borondatea agertu dute

EH Bilduk nagusitasuna eskuratu du Tolosaldean, baina ez du Tolosan irabazi; agintaldi berrian «elkarlanerako aukera gehiago» ikusten dute bi alderdietako alkategaiek

Jon Miranda Tolosaldea

Tolosako EH Bilduk Zerkausian jarraitu zituen hauteskundeetako emaitzak; lehen planoan, Martinez de Rituerto. M. IRAOLA

Eskualdeko zazpi herritan alkatetza eskuratu dute hautetsi zerrenda independenteek, Tolosan EAJ nagusitu da, eta gainerako 19 udalerritan EH Bildu da gailendu den alderdia. Duela lau urte baino 1.331 boto gehiago eskuratu zituen koalizio independentistak Tolosaldean, baina duela zortzi urte Bilduk eta Aralarrek lortu zituenak berdindu gabe. Andu Martinez de Rituerto EH Bilduko alkategaiak gogoratu duenez, Tolosan 2011ko marka historikotik 185 bototara geratu da koalizioa. Tolosan EAJrekiko aldea ere txikitu du EH Bilduk, duela lau urteko 1.000 botoko aldea 215 bototara murriztuz: «Gai izan gara jende askorengan ilusioa pizteko. Zaila zegoen egoera, udal gobernuak haizea alde izan duelako lau urteotan. EAJrengana hainbeste gerturatzeak, bide egokian goazela adierazten du».

EAJ izan da Tolosan indarrik bozkatuena, eta eskualdeko herri horretan bakarrik gailendu da. 2015eko emaitzekin alderatuta, 1.316 botoko galera izan du Tolosaldean, Irura eta Amasa-Villabonako alkatetzak ere galduz. Olatz Peon, Tolosako alkategaiaren hitzetan, «oso zaila» da emaitza hauen arrazoiak bilatzea. «Giroak asko eragiten du. Uste dut Iruran lau urteotan lan asko egin dela, eta Villabonan ere bai. Gauza asko lortu dituzte herriarentzat. Eurak ere pozik daude, ikusi dutelako herriaren zerbitzurako egindako lan hori baloratu egin dela». Tolosan jardunean alkate denak, «osasuntsutzat» hartu du aldaketak ematea: «Askotan ez zaigu gustatzen. Ni neroni gobernutik oposiziora pasata nago, eta oposiziotik gobernura ere bai. Momentu zailak izan daitezke pertsonalki, baina hori da demokrazia. Eskailerak igotzen eta jaisten jakin beharra dago. Orain alde batera tokatzen dena, hurrengoan beste aldera toka daiteke».

Peonek duela lau urte bizi zen giroa ekarri du gogora eta uste du gizartea «oso haserre» zegoela EH Bilduko gobernu taldeak hainbat gairen inguruan egindako politikarekin, «oso modu agerikoan, zabor bilketaren gaiarekin». Horregatik jeltzaleak «oso pozgarritzat» deritzo «horrelako gai zehatz bat eduki gabe, EAJk duela lau urteko emaitzak berrestea».

Martinez de Rituertok EH Bilduk azken agintaldian oposizioan egin duen lana azpimarratu du: «Proposamen asko egin ditu koalizioak eta proposamen horietako asko martxan daude. Akordio ezak eta tentsioak udalaren barruan utzi dira, eta horretan asmatu da; ikustea besterik ez dago giro txukuna dugula orain herritarron artean». Peonek, alderantziz, zenbait gaietan, EH Bilduk bere jarrera «malgutu» egin duela uste du, «hondakinen bilketa ereduan, adibidez». Gainera, hautagaitzek aurkeztu dituzten programei begiratuta, alderdiek gauza askotan bat egin dutela uste du. «Harrigarria dirudi hasiera batean, baina ulertzekoa da Tolosarako estrategikoak diren hainbat proiektu aurre landuta daudelako», esan du Peonek. Zumardi Txikia, Rondilla edota Emakumeen Etxea aipatu ditu jeltzaleak adibide bezala.

Gai horietan adostasunera iristea erraza izango dela uste du EAJko alkategaiak eta iragarri du, bilera erronda bat abiatuko duela alderdiekin, bakoitzak bere programa mahai gainean jarri eta bere burua nola ikusten duen adierazi dezan. «Amankomunean ditugun proiektu eta egitasmoak identifikatu eta hortik hasiko gara lanean, akordioak lortu eta gobernua eratzeko».

«Oso pozgarria da hondakinena bezalako gai konkretu bat eduki gabe, EAJk duela lau urteko emaitzak berrestea Tolosan»

OLATZ PEON
EAJ

«Ados ez gauden gaietan, argudioak mahai gainean jarriz, gure desadostasun eraikitzailea bultzatuko dugu»

ANDU MARTINEZ DE RITUERTO
EH BILDU

GOBERNAGARRITASUNAZ

Tolosak, gobernu sendo bat eta oposizio sendo bat behar dituela adierazi du Peonek. «Bi alderdi indartsu daude gure herrian, EAJ eta EH Bildu. Bata gobernuan dagoenean beste oposizioan egoten da. Programari begiratuta, alderdi sozialistak, gehiengo batean edo bestean, bere burua hobeto non kokatuta ikusten duen erabaki beharko du». PSE-EEk gobernagarritasunerako giltza ote duen galdetuta, alkategai jeltzaleak zera esan du:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK
Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.
Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria. Taberna batean zerbitzari bat behar da. Interesatuek dei dezatela 647 446 363 zenbakira.

Komertzialak. Landanet enpresak komertzialak behar ditu. Baldintza ezin hobeak: lan kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. Interesatuek curriculuma bidali beharko dute *cv info@landanet.net* helbidera edo deitu 943 318 606 telefonora.s

107

ZINEGOTZI EH BILDUK

Eskualdean zinegotzi gehien lortu dituena EH Bildu izan da, guztira 107 hemeretzi herritan. EAJk 34 lortu ditu, zortzi herritan. PSE-EEk 19, hamasei herritan. Beste 60 zinegotziak hautetsi zerrenden artean banatu dira.

7

ALKATETZA INDEPENDENTE

Hautetsi zerrendak hamahiru udalerritan aurkeztu dira, eta horietatik zazpitan lortu dute alkatetza herritarrez osatutako zerrendek: Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Asteasu, Baliarrain, Belauntza eta Hernialde.

%31,04

ABSTENTZIOA TOLOSALDEAN

Orain lau urterekin alderatuta, udal hauteskundeetan abstentzioa %3,07 jaitsi da, %31,04an geratuz. Abstentzio altuenak izandako herriak Berrobi (%41,2), Asteasu (%38,8), Larraul (%38,2) eta Elduain (%38) izan dira.

ZUZENKETA

Ostiralean, maiatzak 24, Tolosaldeko Ataria-k publikatutako erreportajean, 1979ko udal hauteskundeen emaitzak oker zeuden, Tolosako udalerriari dagokionean. Udal hauteskunde haietan, EAJk 8 zinegotzi eskuratu zituen, eta ez 9, eta Herri Batasunak, berriz, 5 eta ez 4, artikuluan agertu bezala. Gainerako datuak zuzen zeuden: Euskadiko Ezkerrak bi eserleku eskuratu zituen, PSE-PSOEk bat eta beste bat EKAk.

«Alderdi bat gobernuan herriak jartzen du eta ez zinegotzi bakar bat duen alderdiak». Hala ere, azken agintaldian EAJk alderdi sozialistarekin harreman «ona» izan duela onartu du.

EH Bilduk, alderdi sozialistako ordezkariarekin «patxadaz eta lasaitasunez» hitz egiteko tartea hartuko duela iragarri du Martinez de Rituertok hauteskunde egunaren biharamunean. «Ez dut aterik ixten. Gure proiektu soziala da, ezkerretik eraiki nahi dugu Tolosa eta PSE-EEko ordezkariekin hitz egingo dugu», esan du koalizio independentistako alkategaiak. Hala ere, «harritzekoa» joko luke Tolosa salbuespena izatea, «alderdi sozialistak eta EAJk akordio orokorrak dituztelako nazio mailan eta pentsatzekoa da horrela jarraituko dutela aurrerantzean ere».

EH Bilduk oposizio «eraikitzailea» egingo duela nabarmendu du Martinez de Rituertok: «Alde ideologikoa egongo da, proiektuetan aldea egongo da, ez gara beti ados egongo, baina horren gainetik pertsonen arteko errespetuak egon behar du eta lehentasunezkoa da herrian bizikidetza eta giro ona egotea. Gure aldetik horrela izango da». Bat etorri da alkategai jeltzalea eta uste du elkarlanerako aukera gehiago egongo direla agintaldi berrian, «batera lan egiteko aukera izatea espero dugu». Peonek, «bizikidetzaren alde» aurrerapauso bat emateko aukera izango dela uste du.

Aro berri baten hasiera iragarri du orain arte Tolosako alkate izan denak, eta Martinez de Rituertok, bere aldetik, «herritarrentzat onak diren proiektuak» babestuko dituztela esan du. EH Bilduko alkategaiaren esanetan, «gure proiektuarekin bat datozen gauzak babestuko ditugu eta ados ez gaudenetan, argudioak mahai gainean jarriz, gure desadostasun eraikitzailea bultzatuko dugu. Hori da dagokiguna. Oposizioan baldin bagaude, udal gobernuaren kontrola egingo dugu».

Lanean hasteko gogoarekin dagoela azpimarratu du Peonek eta elkarlanerako «borondate osoa» agertu du. Martinez de Rituertok, berriz, aitortu du ez bera eta ezta EH Bilduren hautagaitzan doazen zinegotziak ere ez direla politiko profesionalak. «Haien jokoan ez erortzea» espero duela esan du eta «politika egiteko beste era bat» jarriko dutela mahai gainean. «Tolosa ezkerretik eraikitzeko gogoa», azpimarratu du koalizio abertzalearen alkategaiak.

> **«Gai izan gara jende askorengan ilusioa pizteko. Bide egokian goazela adierazten dute emaitzek»**
>
> **ANDU MARTINEZ DE RITUERTO**
> **EH BILDU**

> **«Alderdi bat gobernuan herriak jartzen du eta ez zinegotzi bakar bat duen alderdiak»**
>
> **OLATZ PEON**
> **EAJ**

Batzokian ospatu zuen EAJk Tolosako garaipena; irudian, zinegotzi izango diren zortzi herritarak. IRENE ARIN



«EH Bildurekin akordioetara iristeko urteak pasa beharko dira oraindik»

JOXE MARI VILLANUEVA
PSE-EE

I. Terradillos Tolosa

Lortutako emaitzaren ondorioz, zinegotzi bat izango du legealdi berrian PSE-EEk Tolosan: Joxe Mari Villanueva.

Giltza izango zarete Tolosako Udala osatzeko.

Bai bai. Erabakigarri gainera. Egia da, hartu behar dudan ardura garrantzia handikoa da, eta egia esanda, zenbait momentutan urduri jartzen naiz. Ilusio handiarekin nago, guri botoa eman digutenei eskerrak eman nahi dizkiet. Ez zen oso kanpaina erraza guretzat. Lehia ikaragarria, eta bi alderdi hauen artean gure esparrua markatzea ez zen erraza.

752 boto lortu dituzue.

Kontuan hartu behar da duela lau urte Podemos ez zegoela. Pozik gaude, eta emaitza txukunak izan dira.

Erabakigarria zara.

Bai Olatz eta bai Andu, biak asko baloratzen ditut. Jatorrak eta apalak dira, eta ez dut arazorik izango hainbat akordioetara iristeko. Konplexua da, ez dago jokoan Tolosa bakarrik, Gipuzkoa eta Euskal Herria mailakoa ere bada. Nire apustua beti izan da Tolosaren alde egitea, eta ildo horretatik jarraituko dut.

Hitz egiteko garaia da orain.

Bai, eseriko gara eta hitz egingo dugu. Gure historia hor dago, eta kontuan hartu behar. Eta errepublika garaitik hasita, ondoen funtzionatu duena alderdi sozialista, nazionalistekin izan da. Alde horretatik ez daukat inolako dudarik, eta tradizio bat dugu. Noiz arte? Ez dakit. Baina nik uste dut, EH Bilduren munduarekin akordio batera iristeko hainbat urte pasa beharko direla.

«Kalean egongo gara, eta gure programa kaletik ere aurrera eramango dugu»

IÑIGO CABIECES
ELKARREKIN PODEMOS

I. Terradillos Tolosa

Elkarrekin Podemosek ez du zinegotzirik lortu Tolosan. Iñigo Cabieces alkategaiak, hala eta guztiz ere, lanean jarraitzeko konpromisoa azaldu du.

Zein da egin duzuen lehen balorazioa?

Irakurketa sakonik egin gabe ere, emaitza oso txarrak izan dira. Uste dut Tolosan beste testuinguru bat geneukala buruan. Eta lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkieke gugan konfiantza jarri duten 530 pertsona horiei. Badakitelako, gu udaletxean egon gabe ere, kalean egongo garela eta gure programa kaletik ere aurrera eramango dugula.

Duela hilabeteko hauteskundeetatik jaitsiera izan duzue.

Bai, 1000 botoko jaitsiera egon da. Nik uste dut hauteskunde ezberdinak direla. Orain arte ez geneukan Tolosako udal hauteskunde batzuekin alderatzeko aukerarik. Orokorretan edota erkidegokoan ere aldeak izan ditugu. Hala ere, sentsazioak ezberdinak ziren, eta beste emaitza bat espero genuen. Hala ere, gure izaera eta pentsatzeko modua ez dira aldatzen, eta lanean jarraituko dugu. Guk argi daukagu herritarrak eta auzokideak erdigunean jarri nahi ditugula. Udaletxe barrutik egiteko aukerarik ez dugu izango, baina udaletxe kanpotik jarraituko dugu egiten. Lehen proposamena, hurrengo hilabetean bertan sartuko dugu udaletxean: Usabalgo bonu familiarra.

Lanean jarraitzeko gogoz, beraz.

Hori beti. Tolosak gauza asko aldatu behar ditu, eta beti hoberantz.

PSE-EEk karguak hartuko ditu, Larraulen eta Berrobin

Jose Antonio Rodriguez eta Benjamin Felix Atutxa izango dira, hurrenez hurren, Larraul eta Berrobiko alkateak; boto zuriak ez dira iritsi %95era

Erredakzioa Berrobi / Larraul

Igandeko udal hauteskundeetan, jakina den moduan, PSE-EEko zerrenda baino ez zuten aukeratzeko Berrobiko eta Larraulgo herritarrek. Horren aurrean, boto zuriaren aldeko eskaera eginagatik, PSE-EErentzat izango dira bi udalak, boto zuriak ez baitira iritsi %95era.

Duela lau urte Albizturren egoera berdina zen: zerrenda bakarra aurkeztu zen, PSE-EErena, baina alderdiak uko egin zion alkatetza hartzeari. Oraingoan ordea, PSE-EEk Larraulen eta Berrobin udal gobernua osatuko duela iragarri du, «gure baloreekin bat datorrelako, herri horietako biztanleen bizitza hobetzeko lan egingo dugu». Eneko Andueza Gipuzkoako PSE-EEren idazkari nagusiak egin zuen iragarpena hauteskunde gauean.

Larraulen, 19 boto lortu zituen igandean PSE-EEk. Boto zuriak, aldiz, 95 izan ziren, %83,3a. Emaitza horiekin ondorengo agintaldian 7 zinegotzi izango dituzte PSE-EEkoek. Alkatea, berriz, Jose Antonio Rodriguez izango da. Berrobin, PSE-EEk 30 boto bildu zituen, eta zuriak 218 izan ziren, %87,9. Zazpi zinegotziak eta alkatetza, beraz, PSE-EEren esku geratu dira. Kasu honetan, alkatea, Benjamin Felix Atutxa izango da.%41,89ko abstentzioa izan da.

Berrobin azken lau urteetan EH Bilduk izan ditu alkatetza eta zazpi zinegotziak, 223 botorekin. PSE-EEk sei boto jaso zituen orduan.

Aldiz, Larraulen, Larraulgo Herritarrak taldearen esku zegoen udala, 69 botorekin, eta PSE-EEk zinegotzi bat zuen 12 boto jasota.

Jose Antonio Rodriguez eta Benjamin Felix Atutxa izango dira alkateak. ATARIA

Zapore gazi-gozoa bi indar nagusientzat

Iritzia
Joxemi Saizar
Irakaslea

Igandeko hauteskundeetan argi gelditu da berriz Tolosaldeak bi indar politikoren artean grabitatzen duela: EH Bildu eta EAJ. Biak zapore gazi-gozoarekin geldituko ziren, alaitzeko eta tristatzeko arrazoiak izan baitituzte. Ezker abertzalea 2011ko kopuru historikoetara itzuli da, Villabona eta Irurako udalak berreskuratuz, lehendik zituen beste 16 herrirekin batera. Herri guztietan boto gehiago lortu dituzte, Bidania-Goiatz eta Gaztelun izan ezik (hemen abstentzioa asko igo da, zerrenda bakarra aurkezten zen oraingoan). Gainera Ibarran, Ikaztegietan, Leaburun eta Zizurkilen zuen tartea handitu egin du. Alegian aldiz, abantaila txikitu egin da aurten aurkeztu den talde independente berriarekiko. Pena bakarra Tolosako alkatetza ez berreskuratzea izango du (zerrenda aurkeztu duen beste guztietan irabazi du), nahiz eta igoera nabarmena izan, 4.200 botoen langa gaindituz. Jeltzaleek boto galera izan dute, lehen aipatutako bi udalak galduz, baina Tolosakoari eutsi diote, nahiz eta tartea dezente gutxitu.

Ez da erraza aldaketa horien arrazoiak definitzea. Duela lau urte hondakinen gaiak eragin handia izan bazuen, oraingoan ez da gai izar argirik izan kanpainan, eskualdeko ospitalearena dezente aipatu bada ere. EH Bilduk zerrendak erabat berritu ditu duela lau urte galdu zituen hiru herri horietan, alkategai independenteak eta hautagai gazteekin osatuz. Beharbada horrek herritarren artean sortutako ilusioa izan daiteke gorakadaren motiboa. EAJk aldiz, hiru alkategai horiek errepikatu ditu eta Tolosaren kasuan zinegotzi gehienak ere bai.

Herritar talde independenteek bere lekuari eutsi diote lehendik agintean zeuden zazpi herrietan, aldaketa handirik izan gabe. Eskualdean bere presentzia mantentzen dute, hirugarren indarra irudikatuz nolabait.

PSE-EEk bere emaitzak hobetu egin ditu zertxobait eskualdean, lehendik zituen Tolosa eta Villabonako zinegotzi bana mantenduz, eta Ibarran eta Zizurkilen bana irabaziz. Berrobin eta Larraulen aurkeztu den zerrenda bakarra izan da eta botoen % 5a lortu dutenez, alkatetza eta zinegotzi guztiak sozialistei dagozkie, baina duela lau urte Albizturren gertatu zen bezala, ez zait iruditzen kargu horiek hartuko dituztenik, Foru Aldundiaren esku utziz, honek kudeaketa batzordeak sor ditzan herri horietan.

Elkarrekin Podemos lehen aldiz aurkeztu da gure eskualdean, Tolosan eta Villabonan bakarrik, baina ez du ordezkaritzarik eskuratu, nahiz eta Tolosan zinegotzia lortzetik boto gutxira gelditu. PPk ere ez du zinegotzirik lortu, baina ez du jaitsiera handirik izan aurreko hauteskundeekiko.

Aurpegi eta pertsonei begiratuz, alkate izanda berriz aurkezten ziren 12etatik 10ek errepikatu egingo dute. Badira laugarren agintaldia beteko dutenak, hiru alkate gisa: Abaltzisketan Jon Zubizarreta eta Adunako Josu Amilibia. Hiru urte alkate gisa: Amezketako Iñaki Amundarain, Anoetako Pello Estanga, Asteasuko Pili Legarra, Berastegiko Amaia Azkue (lehen agintaldian zinegotzi izan zen) eta Orexako Eneko Maioz. Silvia Moneok Belauntzan, Bakarne Otegik Ikaztegietan eta Olatz Peonek Tolosan bigarren aldiz errepikatuko dute (hau ere bi agintaldiz zinegotzi izan zen lehenago, bata gobernuan eta bestea oposizioan). Hamar emakume izango ditugu alkatetzan (orain arte 12 izan dira), Baliarrainen zein izango den erabakitzearen faltan.

Foru hauteskundeei begirada bat botaz, aipatu behar da Tolosan eta Ibarran adibidez, EAJk eta EH Bilduk (honen kasuan Villabonan eta Zizurkilen ere bai) udalerako baino boto gutxiago eskuratu dituztela. Eta PSE-EEk eta Podemosek berriz, boto gehiago.

harpidedun izateak badu saria
zozketa

1 TXINDOKIKO ITZALA
Abentura Parkea
Bi lagunentzako
bina sarrera
www.txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 OSIN MASAJE ETA
ESTETIKA ZENTRUA
Masajea
609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 EKAINBERRI museoa:
Kobazuloak + esperientziak
Bi lagunentzako sarrera bikoitza
www.ekainberri.com
ZESTOA
943 868811
info@ekainberri.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

3 ENARAK ITZULI
DIRA liburua eta diska
Gari Berasalu
eta Sergio Ru
G. Txabarri
'Serge'
booktegi.eus
Telefonoz parte hartzeko zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Ziklo politikoak jarraitzen du

Iritzia
Joseba Bergaretxe
Politologoa

Argitu du egunak eta iritsi da datozen lau urteetako lehen astelehena. Tolosaldean zein Gipuzkoan 2015ean hasitako ziklo politikoari jarraipena eman zaio atzoko udal eta foru hauteskundeetan. Alderdi abertzaleen arteko indar korrelazioak antzera jarraituko du eta salbuespen batzuk kenduta, ez da pisuzko aldaketarik aurreikusten Tolosaldea eta Gipuzkoako erakunde nagusietan.

Hona hemen atzoko emaitzek utzitako bost ondorio nagusi:

Lehena. EAJ bigarren indarra da eskualdean, baina jaun eta jabe da Gipuzkoan eta EAEn: alderdi bozkatuena hiru herrialde eta hiriburuetan. Eskualdean zuen helburu nagusia bete du, eutsi egin baitio Tolosako alkatetzari. Bertako alderdirik bozkatuena izateaz gain, ez du arazorik izango udalbatzarrean gehiengoa osatzeko. Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, berriz, bigarren geratu da Tolosaldean, baina Oriako barrutian lau batzarkide eskuratu ditu, EH Bilduk adina. EAJ indartsu dago eta sustraituta dauka boterea. Batetik, boto emaile anitzetatik jasotzen duelako babesa eta, bestetik, erdigune politikoan egoteak alderdi batarekin zein bestearekin akordioetara iristeko ahalmena ematen diolako.

Bigarrena. Eskualdeko herri gehienei EH Bilduren berde argiak ematen die kolore. Tolosaldean alderdirik bozkatuena izan da udal eta foru hauteskundeetan. Aipatzekoak, azken legegintzaldian jeltzaleen esku egon ziren Amasa-Villabona eta Irura, EH Bilduk berreskuratuko baitu bietan alkatetza. Nolanahi ere, oinarrizko erronkak ditu EH Bilduk. Tolosaldea bezalako eskualde euskaldun eta abertzaleetan soilik erakutsi du EAJri aurre egiteko behar adinako indarra. Ongi errotutako alderdia da, oposizio-buru argia, baina datuek erakusten diote etorkizunean alternatiba garailea izateko bere ohiko soziologiatik haratago konkistatu beharko duela. Politika publikoetan, aniztasunean eta komunikazioan dauka non jorratua.

Hirugarrena. PSE-EEk eutsi egin dio. Udal eta foru gobernuetan edukitako presentziak eta Sanchezen indarrak ez-abertzaleen erreferentzia nagusia izatea ahalbideratu dio. Dena den, bada berezitasunik oraingo honetan: Berrobi eta Larraulgo udalak. Aurkeztutako hautagaitza bakarra izanda, Idoia Mendiak harro aipatu zituen Bilbo urrunetik eskualdeko bi udalerriak; beraz, alkatetzak bere gain hartuko dituela aurreikusi daiteke. Elkarrekin Podemos zinegotzirik eta batzarkiderik gabe geratu da eskualdean.

Laugarrena. Urtoko zubitik Leitzaran igarota, Nafarroan gertatutakoak abertzale guztien jaia ozpindu beharko luke. Nafar gizartearen soziologia gailendu da foru erkidegoan eta aldaketa momentu jakin bateko pasarte historiko izatera mugatu da.

Bosgarrena. Zer urrun dagoen Brusela. Tokiko erreferentziekin bozkatzen jarraitzen dugu Europako Parlamenturako hauteskundeetan. Eskualdean bozkatuenak izan diren bi hautagaitza abertzaleek ordezkari bana izango dute Europan. Dena den, hori baino garrantzitsuagoa iruditzen zait azken azterketa Europako panorama politikoari buruz egitea. Popular eta sozialdemokraten akordio historikoa motz geratu da eta liberal eta berdeen igoerak mantenduko du egonkor parlamentua. Europar proiektuaren aurkariek gorako joera dute eta, besteak beste, Italia eta Frantzian bozkatuenak izan dira. Nolanahi ere, oraingoz, ez dute Europako hiru erakunde nagusietako baten jarduna oztopatzeko adina indarrik lortu.



15 alkate berri izango dira Tolosaldean

Albizturren eta Baliarrainen oraindik ez dute erabaki zein izendatu alkate; aurpegi berri ugari izango da udaletan

Erredakzioa

Ekainaren 15ean hartuko dute kargua udal hautetsi berriek. Horietako askok lehen aldia izango dute herritarren ordezkari gisa eta hamabostek gainera, alkate bezala zin egingo dute. Postu horretan errepikatuko dute zenbait hautetsik: hirugarren agintaldia abiatuko dute Abaltzisketako, Adunako, Amezketako, Anoetako, Asteasuko eta Orexako alkateek eta bigarrena berriz, Belauntza, Berastegi eta Ikaztegietakoak.

Oraindik ere udal gobernua osatzeko elkarrizketak abiatu gabe daudela, EAJko Olatz Peonek alkate postuan errepikatuko balu, 2019 - 2023 agintaldian, hamar emakume izango lirateke alkate Tolosaldean. Bukatzear den legealdian hamahiru ziren kargu horretan ari ziren emakumeak.

ERABAKITZEKO DAUDENAK

Albiztur eta Baliarrainen hautetsi zerrendak aurkeztu dira udal hauteskundeetan eta haiek lortu dituzte boto gehien.

Igandeko udal hauteskundeetan PSE-EEk hautagaitza aurkeztu zuen Albizturren baina bi boto baino ez zituen eskuratu. Honenbestez, Albiztur Bizituz taldeko zazpi kideek lortu dute zinegotzi postua. Hautagaitzako kideek aipatu dutenez, oraindik ez dute zehaztu zein hautetsik hartuko duen alkate kargua.

Baliarrainen, berriz, Auzolanean Bizirik zerrenda aurkeztu dute eta bost zinegotziak zerrenda irekiaren bidez hautatu dira. Oraindik ere ez dute erabaki, ordea, ekainaren 15ean zeinek hartuko duen alkate kargua, udalbatza osatzeko osoko bilkuran.

ALKATEAK

Alkate berriak

Alegia. Arantxa Irazusta.
Alkiza. Inaki Irazabalbeitia.
Altzo. Txomin Rezola.
Amasa-Villabona. Beatriz Unzue.
Berrobi. Benjamin Felix Atutxa.
Bidania-Goiatz. Agurtzane Zelaia.
Elduain. Oihana Amundarain.
Gaztelu. Edurne Gartzia.
Hernialde. Aitor Zubillaga.
Ibarra. Igor Zapirain.
Irura. Gorka Murua.
Larraul. Jose Antonio Rodriguez.
Leaburu-Txarama. Joxe Ramon Eizagirre.
Lizartza. Iñaki Azpiroz.
Orendain. Migel Angel Arsuaga.
Zizurkil. Iker Urruzola.

Errepikatzen duten alkateak

Abaltzisketa. Jon Zubizarreta.
Aduna. Josu Amilibia.
Amezketa. Iñaki Amundarain.
Anoeta. Pello Estanga.
Asteasu. Pili Legarra.
Belauntza. Silvia Moneo.
Berastegi. Amaia Azkue.
Ikaztegieta. Bakarne Otegi.
Orexa. Eneko Maioz.

Alkatetza ziurtatu gabe

Tolosa.

Erabakitzeke

Albiztur.
Baliarrain.

107.6 fm · www.ataria.eus
ASTEARTEA, 2019ko maiatzaren 28a

MUSIKARI ESKAINITAKO EGUNA

VI. Musikherria jaia ospatu zuten larunbatean, Tolosan. Egun guztian zehar musikariek euren emankizunak eskaini zituzten musikari eskainitako jaialdiaren laugarren edizioan. ASIER IMAZ

EZ DAGOELAKO BELAR TXARRIK

Ikastaro teoriko eta praktikoak egin zituzten Bedaion, *Belar txarrik ez do!* lelopean. Cesar Lema eta Sofia Armenterosek eskaini zuten ikastaroa eta besteak beste, kosmetika naturalaz aritu ziren. ASIER IMAZ

Jaia nonahi, Ibarraldean

Txaraman jaiak ospatu dituzte, Lizartzan Estratako festak, Berastegin Euskal Jaia egin dute eta Gaztelun Udaberri Festa izan dute.

Erredakzioa

Jaiak izan dituzte Ibarraldeko hainbat txokotan, asteburuan. Gaztelun bigarren aldiz egin zuten Udaberri Festa. Iaz musika kubatarra izan zuten, eta aurten doinu mexikarrak entzun ahal izan ziren.

Lizartzan Estratako festak ospatu zituzten larunbatean, lehen aldiz. Estrata herriko lehen kale gunea izan zen; egungo plazan eliza, udaletxea, eskolako eraikina eta soroa zeudenean, kale nagusia Estratan zegoen. Bertako bizilagun batek, beti esaten zuen Estratako Festak egin behar zirela, eta hil ondoren auzotarrek bere ideia hartu eta lehen aldiz egin dituzte jaiak.

Txaraman ere jaiak izan zituzten, eta Berastegin Euskal Jaia egin zuten larunbatean. Ez dira Ibarraldeko jaiak bukatu dena den, ekaineko bigarren asteburuan izango baitituzte ibartarrek, Gazte Festak.

Estratako festak egin zituzten Lizartzan, lehen aldiz. A. IMAZ

Txaramako jaiak ere asteburuan ospatu zituzten. IRATI SAIZAR

Gaztelun Udaberri Festa egin zuten eta Berastegin Euskal Jaia. IRATI SAIZAR

BERRIA TALDEAK MARKETIN ESTRATEGIA DIGITALAREN ARDURADUNA BEHAR DU
(Erref:19-MD):

Pertsona hau BERRIA TALDEAren marketin estrategia digitala diseinatu eta kudeatzeaz arduratuko da, eta estrategia horren jarraipenaz eta neurketaz, Talde Estrategikoan parte hartuz eta Taldearen helburuak lortzeko erabakietan eraginez. Estrategia eta negozio ikuspuntua duen pertsona baten bila gabiltza, sormena eta ekimena dituena, antolatua, eta taldea dinamizatzeko gaitasuna duena.

Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako ikasketak: Administrazio eta Enpresa zuzendaritza, Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Marketin edo antzeko ikasketak.
- Marketin digitalean espezializazioa: Social media marketinean, Email emarketinean, eta Web posizionamenduan (SEO-SEM) ezagutza.
- Analitika eta datuen neurketarako tresnen ezagutza.
- Big Data ikasketak eta ezagutza baloratuko dira, eta horien aplikazioan eskarmentua izatea lehenetsiko da.
- Euskaraz ondo jakin (gutxienez EGA maila) eta ondo komunikatzea.
- Aurrez marketin estrategia digitalen diseinu eta garapen lanetan aritu izana baloratuko da.

Eskaintzen da:

- Berehala lanean hastea.
- Lanaldi osoko lan kontratu iraunkorra.
- Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidali curriculuma, 2019ko ekainaren 10a baino lehen, '19-MD' erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: **gizabaliabideak@berriataldea.eus**

ARDOEN AZOKA

VI. Ardo Azoka egin zuten Villabonan, larunbatean. Zortzi ardo mota eta hainbat pintxo dastatzeko aukera egon zen, eta zozketa bereziak ere egin zituzten. ASIER IMAZ

BELAUNALDI FESTA

Anoetako gaztetxean ospakizuna izan zuten asteburuan. Bertatik pasatako belaunaldi desberdinak elkartu eta jaia izan zuten. Bazkaltzeko bildu ziren denak. ASIER IMAZ

Tolosa CF, hirugarren mailara

Bigarren geratu da futboleko mutilen talde nagusia, eta igoera lortu du

A. Imaz/I. Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF futboleko mutilen talde nagusiak hirugarren mailara igotzea lortu du. Bere partida irabazi zuen larunbatean Berazubin Añorgaren kontra, eta Anaitasunak Eibarren aurka galdu zuen.

Mikel Arribillaga Tolosa CFko zuzendaritzako kideak azaldu duenez, «Anaitasunaren aurka Azkoitian jokatu ondoren bi puntura geratu ginen, baina gero bolada txar bat izan genuen, eta Anaitasuna Eibarrekin batera oso ondo zihoazen, eta hamabi puntura egon ginen hamar partiden faltan. Oso gutxik sinesten zuten lortutakoa, eta esan behar da horietako bat Ander Avellaneda entrenatzailea zela. Beraien aurka etxean genuen partida hiru jardunaldiren faltan, eta nahi genuen hori irabazi eta presioa sartu. Azkenean kontuak atera zaizkigu».

Ohorezko erregional mailan, berez lehen postuan geratzen dena zuzenean igotzen da eta bigarrenak igoera fasea jokatzen du. Vitoria, Eibarren bigarren taldea, bigarren B mailatik hirugarren mailara jaitsi da, eta Tolosaren ligan jokatu duen Eibarrek, hirugarren taldea izanik, ligan lehen sailkatu arren, ezin du mailaz igo. Beraz, ligan bigarren geratu dena mailaz igotzen da eta hirugarrenak igoera fasea jokatzen du.

Azken astea «tentsioarekin» bizitu dutela esan du Arribillagak, baina baita «konfiantzarekin» ere: «Bagenekien Eibarrek Anaitasunari irabazteko aukera zuela. Beste maila bateko jokalariak dira, eta bagenekien etxean irabaziz gero, aukerak genituela igotzeko».

Tolosa CF–ko jokalariak igoera ospatzen zaletuekin. A. IMAZ

Egun berean Berazubin ospatu zuten jokalariek eta klubeko kideek lorpena. Ondoren, afaria egin zuten ospakizunekin jarraitzeko. Klubaren aldetik «segituan» datorren urtera begira jarriko direla esan du zuzendaritzako kideak. «Adinagatik jokalariren batek utziko du, eta ikusi egin beharko da zein gazte datozen azpitik», esan du. «Datorren urtean hirugarren maila oso indartsua izango da. Oraingoz sei talde jaitsiko dira bigarren B mailatik, eta agian zazpigarren bat ere bai, beraz, maila pila bat igoko da».

Historikoki Tolosari hirugarren maila dagokiola esan du Arribillagak. «Gero kontuan izan behar da garaiak ere ezberdinak direla eta ikusten da Gipuzkoan bigarren B mailan bakarra dagoela, Real Union, eta hirugarren mailan Beasain eta Lagun Onak nahiko finkoak direla, eta gero igotzen den taldea egoten da. Baina, gaur egun, bizkaitarrak ekonomikoki beste maila batean daude. Saiatuko gara datorren denboraldian maila mantentzen, baina ez da erraza izango».

«Gogo gehiagorekin» datorren urterako

Lauburu Ibarrak ez du lehen postua lortu, azken jardunaldiko partida irabazi arren

I. Garcia Landa Ibarra

Azkenean ez da posible izan areto futboleko Lauburu Ibarra taldearentzat. Bere lanak egin zituen, larunbatean partida irabazita, baina Alzira liderrak ere irabazi zuen, eta beraz, horiek jokatuko dute igoera fasea. Lauburu bigarren postuarekin konformatu beharko da. Aitzol Oiarbide kapitainak azaldu duenez, «momentuan pena izan genuen, igoera fasea jokatzeko aukera horren gertu izanik. Gero, denboraldi osoko balantzea eginik, urte ikaragarria egin dugula ikusi dugu eta oso pozik gaude. Datorren denboraldirako gogo gehiagorekin uzten gaitu, eta hori ere pozgarria da taldearentzat». Iaz hirugarren postua lortu zuten, eta aurten azken unera arte egon dira lehen postuaren lehian. «Ikusi dugu lehen postua gertu egon daitekeela, eta datorren denboraldiari begira helburu nagusienetakoa hori izango da», esan du Oiarbidek. «Saiatu, behintzat, egingo gara».

Zierbenaren aurka 5-4 irabazi zuten Belabietan larunbateko partidan. «Oso indartsu atera ginen eta segituan 3-0 jarri ginen. Taldea oso motibatuta zegoen. Esfortzu fisiko handia suposatu ziguten aurkariek, eta partidan zehar 5-0 irabazten joan arren, bukaeran sufritu egin genuen».

Lauburu Ibarra taldeko eta Euskadiko txapelketa irabazi duten kadete mailako jokalariak, elkarrekin, larunbateko neurketaren ondoren. LAUBURU IBARRA

Alzira liderrak Laskorainen aurka zuen, Tolosan, eta 1-4 irabazi zuten. Ibartarrak partida horri begira ere izan ziren, eta lehen zatian 1-2ko markagailuarekin bukatu bazen ere, bigarren zatian liderrak nagusitu ziren.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria n jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!
TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • **Harpidedunentzat 50 €**
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • **Harpidedunentzat 75 €**
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • **Harpidedunentzat 25 €**
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

ASTEARTEA, 2019KO MAIATZAK 28
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA 107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak

BABESTUTAKO EDUKIA

Tolosaldea LHII eta berrikuntza



Gaur egun bizi garen mundu globalizatu honetan distantziarik ez dagoela esan daiteke, eta noski, begien bistakoa da enpresek munduko beste muturrean dagoen enpresa bat izan dezaketela lehiakide bezero bati bere produktua edo lan jakin bat saltzeko.

Hori dela eta, enpresen arrakasta lehiakorra izatean datza, eta horretarako ezinbestekoa da teknika, tresneria eta jakindurian aurreratua izatea; berrikuntzan murgilduta egotea, azken finean.

Garai hauetan modan jarri den INDUSTRIA 4.0 gaiari helduz gero, Tolosaldea bailarako enpresek zenbait gaietan etengabeko berrikuntzan eta hobekuntzan murgilduta egon behar dutela esan dezakegu, eta momentu honetako gai izarren artean zibersegurtasuna, makinen mantenu adimendua, fabrikazio aditiboa, *sensorika* eta *big data* (datuen kudeaketa) ditugu.

Gainera, orain arte aipatutakoez gain, garai hauetako beste gai garrantzitsuak ditugu energia berriztagarriak eta elektromugikortasuna.

BALIABIDEEN ELKARBANATZEA

Bailarako enpresen gehiengoa txiki edo ertainak da tamainari dagokionez.

Hori dela eta, askotan, honelako gaietan murgiltzeko baliabide falta izaten dute, eta horrexegatik Tolosaldea LHko Ikastetxe Integratuak bere baliabide tekniko nahiz giza baliabideak eskaintzen dizkie. Horretarako, batzuetan, Lehiberri zentroaren, udalen, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza programak ezagutarazten zaizkie enpresei, beraiek ere baliatu ditzaten. Beste hainbat kasutan, ikastetxeak laguntzen die guztia kudeatzen.

ELKARLANEKO BOST PAUSOAK

Guztia kudeatzen laguntzeko bost pauso nagusi ematen dituzte elkarlanean: **enpresaren diagnosi bat** egiten dute; **ahulezi, beharren edota hobekuntza aukerak** antzematen dituzte; **hobekuntzak egiteko aukerak batera** garatzen dituzte**; proiektuaren exekuzioa edota inplantatzea** egiten laguntzen dute; eta **emaitzen neurketa** egiten dute.

Urtero, Tolosaldea LHko Ikastetxe Integratuak 25 eta 30 lan kolaborazio inguru egiten ditu berrikuntzaren esparruan, eta gehienbat enpresa industrialetan aritzen da.

Lanen gehiengoa prototipoak garatuz, ekoizpenaren hobetzeko tekniken ezarpena eginez edo formakuntza eskainiz egiten da. Baita soldadura eta galdaragintza,mekanika, prozesu industrialak, mantentze industriala, elektrizitatea eta *big data* arloetan ere.

KOLABORAZIO ADIBIDE ESANGURATSUAK

Cadinox. Kupearen soldagarritasuna.
Teleadin. Tolosako Inmakulada ikastetxearekin batera, adineko pertsonen zaintzarako kamera bidezko urrutirako sistema.
RL Conponents. Pieza baten berdiseinatzea, eta fabrikazio moduaren azterketa eta balizko aldaketa.
Panelfisa. Sensore bitarteko bertako bulegoen isolatze monitorizatzea eta klimatizazio berria.
Tekener. Galdara baten injektorearen diseinu berria zenbait arazo eta matxurari aurre egin ahal izateko.
Etenpuntuak. Eraikin baten diseinu berriaren simulazioa 3D programa bidez, bezeroari erakusteko.
Boinas Elosegui. Txapelak egiten laguntzeko tresneriaren diseinu eta eraikuntza.
Manitek. Hainbat pieza bereziren neurketa metrologikoak ardatz anitzeko makina bidez.
Arsuaga Bizikletak. Pieza berezi batzuen diseinu eta eraikuntza 3D inprimagailu bidez.